

Ingelesak euskarak baino gehiago

Nafarroako Arartekoak lan publikorako oposaketetan ingelesa euskara baino gehiago baloratu ez dezan eskatu dio gobernuari. Bi herritarrek egindako salaketaren ostean dator eskakizuna, Arartekoak arrazoia eman baitie eskaerei.

| ANDER PEREZ |

EZ DA KONTU BERRIA. 2010ean, dagoeneko, LAB, ELA, STEE-EILAS eta ESK sindikatuak zein Behatokiak eta Administrazioan Euskaraz Taldeak ohartarazi zuten Gobernuak oposaketetan ingelesa baloratzen zuela. Euskara, ordea, ez. Orduan salatu zuten, UPN-ren gobernuak trikimailua erabili zuen oposaketetan ingelesaren jakintza baloratzeko. Gobernuak oposaketa gisa mozorrotu zituen oposaketa-lehiaketa zirenak (aurrenekotan proba baino ez da baloratzen; bigarrenen, ordea, probaz gain bestelako meritua ere hartzen dira kontuan). Ingeles proba gainditzen zuenari proba orokorrean lortutako emaitzari %10erainoko puntuazioa gehitzeko aukera eskaini zion exekutiboak. Hala, ingelesaren jakintza derrigorrezko ez, baina erabakigarri suertatu zen lan publikorako hainbat deialdi gauzatzera.

Prozedurak 2009ko foru ebazpen bat du abiapuntua. Funtzio publikoko zuzendari orokorrak argitaratutako agirian zehaztu zen A eta B mailako probek ingelesezko jakintza baloratu zezaketela, oinarritzko ariketa guztiak gainditutako hautagaiei kalifikazioa hobetzeko aukera eman. Ebazpen hura ez zen Nafarroako Buletin Ofizialean argitaratu, gobernuak dioenez, “ez delako arauzaz aririk, eta hortaz, ez delako derri-



gorrez bete beharrekoa”. UPNk, hala, ebazpen horrena aholkua baino ez zela argudiatu zuen. Baina Joseba Otano Administrazioan Euskaraz Taldeko kideak dioenez, prozedura era sistematikoan ezarri da ordutik aurrerako deialdietan.

Egoeraren aurrean, bi herritarrek kexa bana aurkeztu zuten Arartekoaren aurrean. Zehazki, bi deialdietako (Ogasuneko teknikari eta Ogasuneko kudeatzaile eta ikertzailearen ondokorako postuetarako) oinarriak bertan behera uztea eskatu zuten, bertan, aurretik azaldutako prozedura jarraituz, ingelesaren jakintza baloratzen zelako, eta euskararena ez. Arartekoak gaiaren inguruko azalpenak eskatu zizkion Gobernuari eta herritarrei arrazoia ematea erabaki du. Euskararen Legea eta Justizia Auzitegi Nagusiak 2004an emandako epai bat erabili ditu argudio. Lehenengoan zehaztu eta biga-

rrean berresten den modura, euskara Nafarroako berezko hizkuntza dela oroitarazi du Arartekoak, eta hortaz, ingelesa baloratzeko prozedura bi agiri horiek diotenaren aurkakoa dela ebatzi du. Hala, 2009an onartutako ebazpena –ingelesaren balorazioa aitortzen duena– beste bi arauen menpe dagoela adierazi du, horiek maila handiagokoak direlako. Zentzu horretan, atzerriko hizkuntza bertakoa eta neurri batean koofiziala den euskara baino gehiago ezin dela baloratu azpimarratu du, “kasu justifikatuetan” salbu.

Otanok epaia ongi dagoela uste du, baina Arartekoaren ebazpenak lotesleak ez direnez, Gobernuak kasurik ez gitea espero du. Horren aurrean, bide judizialari ekitea litzateke azkeneko aukera, baina ohartarazi duenez, oposizio gile batek baino ezin du salaketarik jarri. Hortaz, eta herritarrek gaur egun epaiketa judizialak euren kabuz ordaindu behar dituztela kontuan hartuz, zaila ikusten du inork bide horri ekitea. Edonola, Arartekoaren ebazpena “presio tresna” gisa erabili daitekeela uste du, Gobernuak, behin betikoz, prozedura aldatu eta lan publikoko deialdietan euskara diskriminatze-ri utz diezaion. ■



Babeslea: Bilboko Udala

HARRAPAZANK ESZENA
SORTUZANK TAILERRAK

harrapazank 2014

harrapazank.com

Bilbao
UDALA
EUSKALTZALEEN
TOPAGUENA